


Azterketak



Hego Euskal Herriko Fiskalitatea. 2004

ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

AURKEZPENA.....	3
I. HEGO EUSKAL HERRIKO FISKALTASUNAREN EZAUGARRI OROKORRAK	4
1. Euskal presio fiskala: Europako Batasuneko azkenetarikoa	
2. Zerga iruzurra: iruzurraren aurkako borroka eskasaren ondorio	
3. Soldatako biztanleria: zerga bilketaren iturri nagusia	
II. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN. 2004	9
1. Hitzartutako zergen bilketa EAEn 2004an eta 2003arekiko bilakaera	
2. Hitzartutako zergen presio fiskala EAEn 2004 eta 1998koaren aldean izandako bilakaera	
3. PFEZaren egoera EAEn	
4. Iruzur fiskala	
III. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA NAFARROAN. 2004.....	23
1. Hitzartutako zergen bilketa Nafarroan 2004an eta 2003arekiko bilakaera	
2. Hitzartutako zergen presio fiskala Nafarroan 2004an eta 1998koaren aldean izandako bilakaera	
3. PFEZaren egoera Nafarroan	

Txosten honen helburua, beste urte batez ere, euskal fiskalitatearen errealitatea erakustea da. Ez dirudi nagusitasuna duten komunikabideak gai honetan oso interesaturik daudenik, baina ELArentzat berebiziko garrantzia duen gai da, zerga bilketa publikoaren baitan baitago gastu publikora, eta baita gizarte gastura zuzenduko den diru kopurua.

Besteak beste, zerga bilketa osoan errenta mota bakoitzak duen partaidetza, zerga zuzen eta zeharkakoek duten pisua, sortzen den aberastasunetik zein portzentaje zuzentzen dugun zergak ordaintzera, e.a. ezagutzera ematen saiatzen gara txosten honetan. Gai guzti hauek aukeratzen joan den gizarte ereduaren baitan daude, eta zerga-politikatik gehien interesatzen zaizkigun alde politikoak dira, azken baten.

Gure erakundeek ez digute fiskaltasunari buruz behar dugun informazio guztia ematen, nahiz eta publikoak eta gardenak izan beharko litezkeen datuak izan, gizarte guztiari eragiten dietenak, guztiok ordaintzen dugun diruaz ari baikara. Hala ere, egin dugun azterketak ideia eta ondorio batzuk ateratzeko balio digu, eta batez ere, gure fiskaltasunaren gabezi nagusiak argitara ateratzeko.

Gizarte ereduari dagozkien gaiak garrantzi handiagoa hartzen joan behar direla ELAn erabaki genuen azken kongresuan, eta honoko hau, zalantzarik gabe, gai hauetariko bat da. Honela, garrantzitsua da egoeraren azterketa egokia burutzea, gero, zerga-sistema eta gizarte eredu bidezkoago eta solidarioago batera eramango gaituzten proposamen eta mobilizazioak aurrera eraman ahal izateko.

Mikel Noval - Julene Gabiola
ELAko Azterketa Bulegoa

I. HEGO EUSKAL HERRIKO FISKALTASUNAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Hego Euskal Herri osoko zerga-sistemaren laburpen edo ondorioak aztertuko ditugu sail honetan, eta Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) eta Nafarroarako azterketa zehatzak egingo ditugu hurrengo ataletan.

Hiru dira Hego Euskal Herriko zerga-sistemari buruz azpimarratu ditzakegun aldeak:

1. Euskal presio fiskala: Europako Batasuneko azkenetarikoa

Zerga guztien (bai zuzenak, bai zeharkakoak) eta Gizarte Segurantzara kotizazioen ordainketara zuzentzen den aberastasunaren portzentajea neurtzen du presio fiskalak.

Europako Batasuneko estatu kide ezberdinen presio fiskala aztertzen badugu 2003 ekitaldirako (informazioa duguneko azken urtea, udal zergak salbu, hauentzako 2002ko informazioa erabili baitugu), **Hego Euskal Herriko presio fiskala azken postuetan dagoela** ikus dezakegu.

Zehazki, **zerga guztien presio fiskala** BPGaren %41,8koa izan zen 2003an 15-EBn (eta BPGaren %41,5ekoa 25-EBn). EAEk BPGaren %32,8ko presio fiskala izan zuen (europar batez bestekoa baino BPGaren 9 puntu baxuagoa). Diru terminoetara itzultzen badugu hau, 2003an EAEko presio fiskala 15-EBkoaren neurrikoa izan balitz, diru sarrerak, izan zirena baino 4.266,5 milioi euro altuagoak izan behar lirateke. Nafarroako presio fiskala BPGaren %32,3koa izan zen 2003an, 15-EBkoa baino BPGaren 9,5 puntu baxuagoa, eta beraz, 1.203,5 milioi eurotako alde konparatiboa dago. Espainiar estatuak, BPGaren %36,5arekin, EAEkoa baino 3,7 puntu altuagoko presio fiskala izan zuen, eta Nafarroak baino 4,2 puntu handiagoa.

Presio fiskala zerga motaren arabera aztertzen badugu, Hego Euskal Herriko presioa Europako Batasunekoa baino baxuagoa da kasu guztietan. Honela, **zeharkako zergen presio fiskala** BPGaren %14koa zen 15 estatuen Europako Batasunean, BPGaren %10,5ekoa EAEn (15-EBkoa baino 3,5 puntu baxuagoa), eta BPGaren %10,4koa Nafarroan (36 puntu baxuagoa).

Zerga zuzenen presio fiskalari dagokionez, 15-EBk BPGaren %13,5eko presioa izan zuen 2003an, EAEko BPGaren %9,7aren (europarra baino 3,7 puntu baxuagoa) eta Nafarroako BPGaren

%9,4aren aldean (4 puntu txikiagoa). Zerga zuzenetan du Hego Euskal Herriak 15-EBrekiko ezberdintasunik handiena.

Maila txikiagoan baina **Gizarte Segurantzara kotizazioetan** ere Hegoaldeko presio fiskala europarren azpitik dago. Zehazki, 15-EBk BPGaren %14,4ko presioa jasan zuen 2003n Gizarte Segurantzara ordainketetan; EAEn BPGaren %12,6koa izan zen hau (15-EBkoa baino 1,8 puntu baxuagoa), eta Nafarroan BPGaren %12,5ekoa (1,9 puntu txikiagoa).

**EBko PRESIO FISKALA, OSOA,
ETA ZERGA MOTAREN ARABERAKOA (BPG %), 2003**

	Z. guztiak /BPG	Zeharkako Z. /BPG	Z. zuzenak /BPG	G.S. ordainketak /BPG
Suedia	51,4	17,5	12,4	10,8
Danimarka	49,8	17,4	20,8	3,2
Belgika	48,1	13,9	10,5	12,6
Finlandia	45,1	14,4	13,1	11,1
Frantziar E.	45,7	15,6	8,8	10,4
Austria	44,8	15,1	10,1	10,9
Italia	43,2	14,8	12,1	10,8
Luxenburgo	42,3	13,9	12,4	11,1
Alemania	41,7	12,4	7,7	11,5
15-EB	41,8	14,0	13,5	14,4
25-EB	41,5	14,0	13,1	14,3
Holanda	39,9	13,5	9,9	10,8
Grezia	38,6	14,4	8,7	9,2
Portugal	38,1	16,0	10,3	8,2
Erresuma Batua	37,1	13,7	15,5	8,8
Espainiar E.	36,5	12,3	10,0	10,9
EAE	32,8	10,5	9,7	12,6
Nafarroa	32,3	10,4	9,4	12,5
Irlanda	28,6	12,5	17,8	6,3

Iturriak: Eurostat, Eustat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

Beraz, **HEHko presio fiskal osoa 15en Europar Batasunekoa baino askoz baxuagoa da**, eta horren ondorioz, europar batez bestekoa baino 5.470 milioi euro gutxiago biltzen dira urtero. **Alderik nagusiena zerga zuzenetan dago, zeharkako zergek jarraitzen diotelarik oso hurbiletik**, eta Gizarte Segurantzara ordainketetan dagoen aldea txikiagoa izanik.

2. Zerga iruzurra: iruzurraren aurkako borroka eskasaren ondorio

HEHko presio fiskala hain baxua izatearen arrazoiatariko bat, zerga-iruzurraren existentzia da.

Zerga-ikuskapenei buruzko informazioa oso urria da, eta gai honi buruzko **informaziorik ez erakustea** nahiago dutela **erakundeek** adierazten du honek. Hala ere, soldatakoak ez direnen ondorioz zenbat gutxiago biltzen den, adibidez, asko interesatzen zaigun zerbait da. Izan ere, **gastu publikoak, eta gizarte gastuak, zuzeneko lotura dute zerga bilketarekin, eta ondorioz, baita iruzurraren ondorioz biltzen ez den kopuruarekin ere.**

Bereziki salatzeko modukoa deritzogu Arabako Ogasuneko enjarrerari, zergen bilketari buruzko urteko txostenik argitaratzeko ardura ere ez baitute hartzen. Gainera, zerga-ikuskapenen gaineko informazioa behin eta berriz eskatu dugun arren, isiltasuna izan da beti beraien erantzuna.

Bizkaia eta Gipuzkoan zergei buruzko urtekariak argitaratzen dira, eta ondorioz, 1996tik 2002ra bitarte ikuskatutako zergadunen gaineko informazioa daukagu eskueran.

Gipuzkoan, 2002an, 390 zergadunen aitorpenak baino ez ziren ikuskatu, portzentaje guttiz irriagarria, ikus daitekeenez. Beheko taulako datuetatik ondoriozta daitekeen arabera, 1996tik aurrera ikuskapen kopuruari buruzko joera aldatzen izan bada ere, behirantzko joera nabaria dago, gainera. Izan ere, 2002an 1996an (653) baino 263 ikuskapen gutxiago egin ziren.

Bizkaian, 2002an, 752 zergadunek iruzurra egin zutela hautesman zen; gure zenbatespenen arabera, kopuru hori bat dator **ikuskatutako** zergadunen kopuruarekin. Datu horren arabera, 2002an 1996an baino 292 ikuskapen gehiago egin ziren, baina 2001ean baino 121 gutxiago.

IKUSKATURIKO ZERGADUN KOPURUA. GIPUZKOA ETA BIZKAIA, 1996-2002.

	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002
Gipuzkoa	653	663	507	576	479	528	390
Bizkaia	460	511	636	858	858	873	752

Iturriak: Gipuzkoa eta Bizkaiko Ogasunak

Nafarroan, urte ezberdinetako aurrekontu-proiektuetako informazioa soilik aztertu dezakegu, eta beraz, ez da benetako informazioa, betetzea espero den helburuei dagokiena baizik.

Informazio horren arabera, 2005ean zergak ikuskatzen 35 pertsona aritzea aurrakusi da, 2004an baino 2 gehiago, eta 2003an baino 4 gehiago; hori positiboa bada ere, ez da inola ere nahikoa. 2005ean egitea aurreikusitako ikuskapenak, ordea, 350 dira, hots, 2004an eta 2003an beste. Hortaz, plantilla igotzeak ez dakar ikuskatutako zergadunen kopurua ugartzerik. Beraz, **zerga-ikuskapenak egiten 4 pertsona gehiagok dihardute 2003tik aurrera, baina ikuskapenen kopurua ez da handitu.**

Horren arabera, 2003an egindako **ikuskapenak ekitaldi horretako enpresa- eta lanbide-errentak dituztenen %0,56ra** (eta zergadun guztien %0,2ra) **baino ez dira heltzen**, kopuru guztiz irriagarria, batez ere, kolektibo horiek batez beste aitortutako errentak urri-urriak direla kontuan hartuta.

Ikuskaritzarako erabilitako **finantza-baliabideek** ere (BPGaren %0,0134) agerian uzten dute Nafarroako Gobernuak gai honi ematen dion **garrantzi eskasa**; baliabideok, gainera, murriztu egin dira aurreko ekitaldikoarekiko.

ZERGEN IKUSKARITZARI BURUZKO INFORMAZIOA. NAFARROA, 2003-2005

	2003	2004	2005
GIZA BALIABIDEAK	31	33	35
ZERGADUN KOPURUA	350	350	350
IKUSKARITZA GTU./BPG %	0,0125	0,0151	0,0134

Iturria: Nafarroako Gobernuak

Zerga-ikuskaritzan egiten den ahalegina oso urria da Hegoaldean, eta lurralderen baten, murrizten ari da gainera. Horrek eragiten duen gizarte bidegabekeria zuzendu edo amaiarazi beharrean, orokorren, **gero eta zerga-iruzur handiagoa baimentzeko joera** dagoela adierazten du honek. Hala ere, EAEn kasuan adibidez, azaleratzen den iruzurra altua dela ikusi ahal izango dugu txostenean, eta beraz, **zerga ikuskaritzako ahalegina gehitzea ekonomikoki errentagarria dela** pentsa dezakegu.

Xehetasun hori alde batera utzita ere, **gizarte-justizia bera bazarrik nahikoa arrazoi litzateke horrela jokatzeko**; Belgikan, esatera-

ko, zergadunen %100 ikuskatzen dira preskripzio-urteetan: horrek frogatzen duenez, benetako gakoa **borondate politikoa da**.

3. Soldatako biztanleria: zerga bilketaren iturri nagusia

Soldatakoak ez diren errentetan ematen den zerga iruzurraren ondorioz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin (**PFEZ**) **bildutakoaren %80 inguru lan errentetatik dator**, eta honek, soldatako biztanleria dela zerga honetan gehien ordaintzen duena adierazten du. Urtez urte, lan errentak dituztenek aitorturiko batez besteko errenta, ekonomi errentak lortzen dituztenena baino askoz altuagoa da.

2001ean Hego Euskal Herrian aitorturiko batez besteko lan errenta 17.477,1 eurotako izan zen, eta 10.433,3 eurotako bakarrik enpresa-, lanbide- eta arte errenta. Lan errentak dituztenek, beraz, ekonomi errentak dituztenek baino 7.043,8 euro altuagoko sarrerak aitortu zituzten 2001ean (diferentziak aintzinako milioi euroa gaitzen du!).

KOLEKTIBO EZBERDINEK AITORTURIKO BATEZBESTEKO ERRENTA. HEH, 2001

LAN ERRENTAK	17.477,1
EKONOMI ERRENTAK	10.433,3
DIFERENTZIA	7.043,8

Iturriak: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa eta Nafarroako Gobernua

Emandako estatistika aldaketen ondorioz, ezinezkoa da Hego Euskal Herriko aitorturiko batez besteko errentaren bilakaera homogenea kalkulatzeko, baina bai EAerako, zein Nafarroarako azterketa zehatzek, **lan errentak eta ekonomi errentak dituztenen arteko aldea handitu egiten dela urtez-urte** ondorioztatzeko balio dute. Ez dago esan beharrik, nomina bat ez izatearren, benetako sarrerak aitortzen ez dituztenek buruturiko zerga iruzurraren ondorioz dela.

II. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN. 2004

1. Hitzartutako zergen bilketa EAEn 2004an eta 2003koarekiko bilakaera

Honako atal honetan, EAeko hitzartutako zergen 2004ko bilketa eta 2003ko bilketaren aldean izandako bilakaera aztertuko ditugu. EAEn, hitzartutako zergak Kontzertu Ekonomikoan adostutakoak dira, eta EAeko lurralde historikoetako foru ogasunek biltzen dituzte.

2004an, EAeko foru-ogasunek **9.906,87 milioi euro** bildu dituzte, hau da, 2003an (9.205,31 milioi euro) **baino %7,6 gehiago**.

a) Bilketa handiena eragin duten zergak.

Bilketa handiena eragin duten zergak aztertzean, hauxe ikusten dugu:

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) izan da diru-sarreraren gehien eragin dituen (3.646,03 milioi euro), bilketa osoaren %36,8, hain zuzen ere. Era berean, gehien hazi den zerga ere izan da (%12,1), honela, 2003ko bilketan zuen pisua (%35,3) 1,5 puntu handituz.
- Bilketa handiena eragin duen bigarrena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) izan da (3.052,01 milioi euro), bilketa osoaren %30,8rekin. Zerga hori izan da gutxien hazi dena (%1,1 baino ez), eta, ondorioz, bilketa osoan duen pisua 2 puntu jaitsi da 2003koaren (%32,8) aldean.
- Zerga Bereziak 1.231,85 milioi euroren bilketa eragin dute, hots, bilketa osoaren %12,4. Zerga Bereziak ere batez beste koaren gainetik hazi dira, %9,8, hain zuzen ere. Era horretan, zerga horien pisua 2003koa (%12,2) baino 0,2 puntu handiagoa da.
- Sozietateen gaineko Zergaren bidez 1.139,51 milioi euro bildu dira, bildutako guztiaren %11,5, alegia. Zerga horrek eragindako diru-sarrerak %9,7 handitu dira, 2003ko pisua (%11,3) 0,2 puntu hazi delarik.

**BILKETA HANDIENKO ZERGA, MOTAREN ARABERA;
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2004-2003. MILIOI EUROTAN**

	2004	EGITURA (%)	2003	EGITURA (%)	% ALD.
BEZ	3.646,03	36,8	3.252,42	35,3	12,1
PFEZ GUZTIRA	3.052,01	30,8	3.018,07	32,8	1,1
Z. BEREZIAK	1.231,85	12,4	1.121,70	12,2	9,8
SOZietate Z.	1.139,51	11,5	1.039,21	11,3	9,7
BESTE	837,47	8,5	773,91	8,4	8,2
GUZTIRA	9.906,87	100	9.205,31	100	7,6

Iturria: Eustat

Beraz, **BEZa** da bilketa handiena eragin duen zerga, bai eta 2003ko ekitaldiarekin alderatuta gehien hazi dena ere. Era horretan, zerga horrek bilketa osoan duen **pisua handitu egin da, berriro ere.**

b) Zuzeneko eta zeharkako zergen bilketa

Bilketa **zuzeneko ala zeharkako zergek** eragindakoa den arabera, honakoa ikus daiteke:

- Zeharkako zergek 5.440,97 milioi euroko bilketa eragin dute guztira, hau da, bilketa osoaren %54,9. Zerga horiek %11,5eko gehikuntza izan dute, eta, beraz, 2003an zuten pisua (%53) 1,9 puntu handitu da.
- Zuzeneko zergen bilketa 4.362,33 milioi eurokoa izan da, bildutako guztiaren %44koa, alegia. Zerga horien bilketa %3,4 besterik ez da hazi, eta, ondorioz, 2003an zuen pisua (%45,8) 1,8 puntu urritu da ekitaldi honetan.
- 2003koarekin erkatuta %4,5 urritu eta gero, gainerako zergen batura (hau da, Tasen eta Bestelako Sarrerren multzokoak, ez zuzeneko ez zeharkako zergatzat hartzen ez direnak) 103,57 milioi eurokoa izan da (osokoaren %1ekoa, alegia, 2003ko %1,2aren aldean).

**HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA;
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2004-2003. MILIOI EUROTAN**

	2004	EGITURA (%)	2003	EGITURA (%)	% ALD
ZEHARKAKO Z.	5.440,97	54,9	4.878,54	53,0	11,5
Z. ZUZENAK	4.362,33	44,0	4.218,31	45,8	3,4
BESTE	103,57	1,0	108,47	1,2	-4,5
GUZTIRA	9.906,87	100	9.205,31	100	7,6

Iturria: Eustat

Beraz, **biztanle guztiek**, bakoitzaren diru-sarrerak kontuan izan gabe, **ordaindu behar dituzten zergen pisua berriro hazi da**, bakoitzak lortutako diru sarreren araberako zergak, aldiz, berriro murriztu direlarik. Era horretan, 2003an, zeharkako zergen bilketa, zuzeneko zergena baino 7,2 puntu handiagoa izan zen; 2004an, berriz, aldea 10,9 puntukoa izan da. Hortaz, zeharkako zergen eta zuzeneko zergen bilketen arteko aldea 3,7 puntu handitu da 2003tik 2004ra.

c) Zuzeneko zergen bilketa, errenta-iturriaren arabera

Orain, lan errenten gainekoak ala enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten gainekoak diren arabera aztertuko ditugu zuzeneko zergen bilketaren osagaiak (2004an, 4.262,33 milioi euro bildu dira zuzeneko zergen atalean, hots, 2003an baino %3,4 gehiago):

- Lanaren PFEZak 3.192,88 milioi euroren bilketa eragin du 2004an, hau da, zuzeneko bilketaren %73,2. 2003koaren aldean %4 hazi ondoren, 2003ko bilketa osoan zuen pisua ere (%72,8) 0,4 puntu handitu da.
- Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten gaineko zergen zioz 1.452,94 milioi euro bildu dira, hau da, aurreko ekitaldian baino %7,1 gehiago. Zuzeneko bilketaren %33,3 eragin dute (2003an baino 1,2 puntu gehiago). Errenta horien bi osagaiak aztertzean ikus dezakegunez:
 - * Sozietateen gaineko Zergaren bidez 1.139,51 milioi euro bildu dira, hau da, aurreko ekitaldian baino %9,7 gehiago. Beraz, zuzeneko zergen bidez bildutako guztiaren %26,1 eragin du, eta 2003an (%24,6) baino 1,5 puntu gehiago.
 - * Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZren ziozko bilketa %1,1 urritu da 2003koaren aldean: 313,43 milioi euro bildu dira 2004an horren eraginez. Hortaz, zuzeneko bilketaren %7,2 dagokio, hots, 2003an (%7,5) baino 0,3 puntu gutxiago.
- Zuzeneko gainerako zerga guztien batura (Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta abarrena) -283,48 milioi eurokoa izan da; kopuru negatiboa izan da, PFEZko kuota diferentzial garbiaren ondorioz (hau da, errenta-aitorpenak egiten direnean, ogasunek itzultzen dituzten kopuruak kobratzen dituztenak baino handiagoak direnez, kuota diferentzial garbia negatiboa da beti).

ZUZENeko ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA;
EGITURA ETA BILAKAERA. EAE, 2004-2003. MILIOI EUROTAN

	2004	EGITURA (%)	2003	EGITURA(%)	% ALD.
LANAREN PFEZ	3.192,88	73,2	3.070,47	72,8	4,0
-SOZietATE Z.	1.139,51	26,1	1.039,21	24,6	9,7
-ENPR., PROF., K. PFEZ	313,43	7,2	316,79	7,5	-1,1
ENPR., PROF., K. (*) ERR.	1.452,94	33,3	1.356,01	32,1	7,1
BESTE	-283,48	-6,5	-208,17	-4,9	36,2
Z. ZUZENAK GUZTIRA	4.362,33	100	4.218,31	100	3,4

Iturria: Eustat

Atal honi amaiera emateko ondoriozta daiteke 2004an gehien hazi den zuzeneko zerga Sozietateen gaineko Zerga (%9,7) izan dela, eta bigarrena **lanaren PFEZ (%4)**; zerga horiek zerga zuzenen bilketan duten pisua ere hazi da. Hala ere, lanaren PFEZ (zuzeneko bilketaren %73,2) **zuzeneko zergen baturaren ia hiru laurden bestekoa da, oraindik ere**. Bestalde, enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZren ondoriozko bilketa urritu egin da 2003koaren aldean.

d) 2004ko bilketari buruzko ondorioak

- **BEZ**aren nagusitasuna berriro hazi da, gainerako zergen aldean.
- **Zeharkako zergen** baturak bilketa osoan duen pisua ere berriro handitu da.
- Sozietateen gaineko Zerga batez bestekoaren gaintik hazi da, baina **lanaren PFEZ** zuzeneko zergen bilketaren %73,2koa da, oraindik ere.

2. Hitzartutako zergen presio fiskala EAEn.

2004 eta 1998koaren aldean izandako bilakaera

a) Presio fiskal osoa. 2004 eta bilakaera

Hitzartutako zergen presio fiskalak, **sortutako aberastasunetik - Barne Produktu Gordinarean (BPG) arabera neurtuta- zerga horiek ordaintzeko erabiltzen den portzentajea** neurtzen du.


(*): Sozietate gaineko Zerga + Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZ

2004an, hitzartutako zergen presio fiskala **BPGaren %19,7koa** izan da; hau da, EAEn sortu diren 100 euro bakoitzetik 19,7 hitzartutako zergak ordaintzera bideratu dira.

Datu horren arabera, **0,2 puntuko igoera** egon da 2003ko presioaren aldean, bai eta 1998koaren aldean ere (urte hori hartu dugu erreferentziazat, Nafarroako zerga bereziak 1998an hasi zirelako biltzen). Datu hori onuragarria dela pentsa genezake, presio fiskal handiagoa egoteak, teoriarik, gastu publiko handiagoa (gizarte-gastua, adibidez) egiteko aukera ematen duelako. Baina gertatu den igoera txiki hori zeharkako zergen presio fiskalen igoeraren ondorioa izan da, zuzeneko zergena urritu egin baita. Zehazki:

- Zeharkako zergen presio fiskala BPGaren %10,8koa izan da 2004an, hau da, 2003ko presioa (BPGaren %10,3) baino 0,5 puntu handiagoa eta 1998koa (BPGaren %9,8) baino puntu bat altuagoa.
- Zuzeneko zergen presio fiskala BPGaren %8,7koa izan da 2004an, hots, 2003ko presioa (BPGaren %8,9) baino 0,2 puntu txikiagoa eta 1998koa (BPGaren %9,4) baino 0,7 baxuagoa.

Beraz, 1998an, zeharkako zergen presio fiskala zuzeneko zergena baino 0,4 puntu handiagoa baino ez zen izan, eta 2003an eta 2004an, hurrenez hurren, 1,4 eta 2,1 puntukoa izatera igaro da alde hori.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA, GUZTIRA, ZUZENAKO ZERGENA ETA ZEHARKAKOENA. EAE, 1998-2004 (BPG %)


Iturria: Eustat

Hortaz, presio fiskalak nolabaiteko hazkundera izan badu ere, zeharkako zergek bakarrik eragin dute igoera hori, zuzeneko zergen presioa murriztu egin baita, bai 2003koaren bai 1998koaren aldean.


b) Zuzeneko zergen presio fiskala. 2004 eta bilakaera

Ondorengo grafikoak zuzeneko zergen bilketaren osagaien presio fiskala eta horien bilakaera aztertzeko aukera ematen digu.

- Lanaren PFEZ, BPGaren %6,3arekin, presio fiskal handieneko osagaia izan da, 2003ko presioaren aldean 0,2 puntu eta 1998koaren aldean 0,4 puntu urritu bada ere.

- Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten gaineko presio fiskala (BPGaren %2,9) lanaren PFEZrenaren erdia baino txikiagoa da. Errenta horien gaineko presio fiskala mantendu egin da aurreko urtekoaren aldean, baina 0,2 puntu txikiagoa da 1998koaren aldean, orduan BPGaren %3,1ekoa zen eta. Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten bi osagaiak aztertzean ikus daitekeenez:
 - * Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala BPGaren %2,3koa izan da 2004an, hau da, 2003koa eta 1998koa baino 0,1 puntu handiagoa.
 - * Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZk BPGaren %0,6ko presioa izan du 2004n, hots, 2003koaren antzekoa eta 1998koa baino 0,3 puntu txikiagoa.

HITZARTUTAKO ZUZENENKO ZERGEN PRESIO FISKALA.
EAE, 1998-2004 (BPG %)



Iturria: Eustat

Atal hau amaitzeko esan dezakegu **zuzeneko zerga** guztien **presio fiskala** urritu dela 1998koaren aldean, Sozietateen gaineko Zergarena izan ezik. Hala eta guztiz ere, **lanaren PFEZren presio fiskala Sozietateen gaineko Zergarena baino 2,7 bider handiagoa eta enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZrena baino 10,5 bider altuagoa da oraindik ere.**

c) Presio fiskala lurralde historiko bakoitzean. 1998-2004

Presio fiskala lurraldez lurralde aztertzean, hauxe ikus daiteke:

- Araba 1998an presio fiskal txikiena (BPGaren %18,6) zuena izatetik, 2004an presio handiena izatera (BPGaren %19,8) igaro da, 6 urteotan presioa 1,2 puntu hazi da bertan eta.
- Bizkaiko presio fiskala BPGaren %19,7koa izan da 2004an, 1998koaren (BPGaren %19,9) aldean 0,2 puntu jaitsi ondoren; beraz, dagoeneko ez da presio fiskal handieneko lurraldea.
- Gipuzkoako presio fiskala Bizkaikoaren berdina da (BPGaren %19,7) 1998ko presioaren (BPGaren %19,3) aldean BPGaren 0,4 puntu hazi eta gero.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA (BPG %), ZERGA MOTAREN ARABERA. ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA, 2004-1998

	ARA 04	ARA 98	BIZ 04	BIZ 98	GIP 04	GIP 98
BEZ	7,9	6,3	7,0	6,4	7,4	6,4
Z. BEREZIAK	2,4	2,3	2,5	2,6	2,5	2,5
LANAREN PFEZ	6,2	6,1	6,5	7,0	6,2	6,5
ENPR., PROF., K. (*) ERREN.	2,8	3,6	2,9	2,9	2,9	3,0
BESTE	0,4	0,3	0,9	1,0	0,7	0,9
GUZTIRA	19,8	18,6	19,7	19,9	19,7	19,3

Iturria: Eustat

Ondorioz, 2004an, **hiru lurraldeetako** presio fiskala **oso antzekoa izan da**, batez ere 1998koarekin alderatuta, urte horretan Bizkaiko presioa Gipuzkoakoa baino 0,6 puntu handiagoa eta Arabakoa baino 1,3 puntu handiagoa baitzen.

e) 2004ko presio fiskalari eta horren bilakaerari buruzko ondorioak

- Presio fiskalak **hazkunde txikia izan du**, eta **zeharkako zergen** presioa haztearen ondorioz eman da igoera hau, zuzeneko zergen presioa urritu egin baita.

- Zerga zuzenei dagokienez, Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala bakarrik hazi da, baina, hala ere, **lanaren PFEZ da, alde handiz, presio fiskalik handiena jasaten segitzen duena.**

3. PFEZren egoera EAEn

a) Aitortutako errentaren jatorria

PFEZn aitortzen den errenta nondik datorren aztertuko dugu atal honetan. Eskura daukagun informazio berriena 2001ean lortutako mozkinen buruzkoa da.

2001ean, Araban PFEZren zioz aitortutako errentaren %81,2, Bizkaian aitortutakoaren %79,7 eta Gipuzkoan aitortutakoaren %77,8 **lanaren errentetatik** etorri zen.

2001ean, PFEZn **enpresaburuen, profesionalen eta artisten errenten zioz** aitortutakoa %9 izan zen Araban, %8 Bizkaian eta %9,8 Gipuzkoan.

Azkenik, **gainerako errenten zioz** (higigarrien kapitala, higiezi-
nen kapitala eta abar) PFEZn aitortutakoa %9,8 izan zen Araban,
%12,3 Bizkaian eta %12,4 Gipuzkoan.

Orokorrean, lanaren errentek eta gainerako errentek **1999 eta 2001 bitartean** aitortutakoan duten pisua hazi egin da, enpresaburuen, profesionalen eta artisten errenten pisua urritu egin delarik:

- Lanaren errenten pisua 1,8 puntu areagotu da Araban eta Bizkaian, Gipuzkoan 0,2 puntu murriztu delarik.
- Enpresaburu, profesional eta artisten errenten pisuak 2,8 puntuko urripena izan du Araban, 1,3 puntukoa Bizkaian, eta 2 puntukoa Gipuzkoan.
- Gainerako errenten pisua 1 puntu hazi da Araban, eta 2,2 puntu Gipuzkoan, Bizkaian 0,4 puntu urritu delarik.

**ERRENTAREN ITURRIEK PFEZn DUTEN PISU ERLATIBOA (%).
EAE, 1999-2001**

LURRALDEA	URTEA	LANA	ENPR., PROF., ART.	BESTEAK
ARABA	1999	79,4	11,8	8,8
	2000	80,1	9,9	9,9
	2001	81,2	9	9,8
BIZKAIA	1999	77,9	9,3	12,7
	2000	78,7	8,5	12,8
	2001	79,7	8	12,3
GIPUZKOA	1999	78	11,8	10,2
	2000	77,7	10,4	11,9
	2001	77,8	9,8	12,4

Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Beraz, **PFEZn aitortzen denaren %80 inguru lanaren errentetik dator**, eta portzentaje hori **gero eta handiagoa da** urteak iragan ahala.

b) Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta

Kolektibo bakoitzak batez beste PFEZn aitortzen duen errenta aztertuko dugu oraingoan. Atal honetan ere, eskura daukagun informaziorik arestikoena 2001ekoa da.

2001ean, **Araban**, lanaren errentak jasotzen dituztenek 16.715,3 euro aitortu zituzten, batez beste, PFEZn; enpresaburuek, profesionalek eta artistek batez beste aitortutako errenta, aldiz, 11.930,1 eurokoa izan zen. Hau da, batez beste aitortutako lan-errenta enpresaburuek, profesionalek eta artistek batez beste aitortutakoa baino 4.785,2 euro gehiagokoa izan zen.

Bizkaian, lan errentak aitortzen dituztenek 17.164,3 euro aitortu zituzten batez beste, enpresaburu, profesional eta artistek aitortutakoak (10.515 euro) baino 6.649,2 gehiago, hain zuzen ere.

Gipuzkoan batez beste aitortutako lan errenta 17.221,8 eurokoa izan zen, enpresaburu, profesional eta artistek aitortutakoa, berriz, 11.647,9 eurokoa (5.573 euro gutxiagokoa) izan zelarik.

Hortaz, **lan errentak** eskuratzen dituztenek, hau da, soldatakoen kolektiboak, **enpresaburuek, profesionalek eta artistek baino askoz** diru-sarrera handiagoak **aitortu zituzten** 2001ean.

Alde hori, gainera, **gero eta handiagoa da urtez urte**, lan errentak dituztenek aitortzen dutena nabarmenki hazten den bitartean,

enpresaburuek, profesionalak eta artistek aitortzen dutena oso gutxi handitzen baita, eta, zenbaitetan, urritu ere egiten da:

- Araban, lan errentak jasotzen dituztenek batez beste 1.949 euro gehiago aitortu zituzten 2001ean 1999an baino; enpresaburu, profesional eta artistek aitortutako errenta, ordea, 819,8 euro murriztu zen epealdi horretan. Beraz, kolektibo baten eta bestearenaren errenten arteko aldea 2.738,9 euro hazi zen 2 urte horietan.
- Bizkaian, lan errentak dituztenek 1.797,5 euro gehiago aitortu zituzten 2001ean 1999an baino; enpresaburu, profesional eta artisten errentek epealdian izandako hazkundera 100,9 eurokoa izan zen bakarrik. Hortaz, bi kolektibo horien errenten arteko jauzia 1.696,6 euro handitu zen aipatutako aldiaren zehar.
- Gipuzkoan, 1999tik 2001era bitarte, lan-sarrerak dituztenek batez beste aitortutako errenta 1.600,8 euro handitu zen, enpresaburu, profesional eta artistek aitortutakoa, berriz, 178,7 euro hazi zelarik. Horren ondorioz, bi errenta mota horien arteko aldea 1.422,1 euro handiagoa zen aztertutako epealdiaren amaieran.

**KOLEKTIBO BAKOITZAK PFEZn BATEZ BESTE
AITORTUTAKO ERRENTA. EAE 1999-2001 (EURO)**

LURRALDEA	URTEA	LANA	ENPR, PROF, ART.	DIFERENTZIA
ARABA	1999	14.796,2	12.749,8	2.046,3
	2000	15.929,2	11.956,1	3.973,1
	2001	16.715,3	11.930,1	4.785,2
	1999-2001	1.919,2	-819,8	2.738,9
BIZKAIA	1999	15.366,8	10.414,3	4.952,6
	2000	16.484,9	10.375,2	6.109,6
	2001	17.164,3	10.515	6.649,2
	1999-2001	1.797,5	100,9	1.696,6
GIPUZKOA	1999	15.621,0	11.469,2	4.151,8
	2000	16.634,5	11.325,9	5.308,6
	2001	17.221,8	11.647,9	5.573,9
	1999-2001	1.600,8	178,7	1.422,1

Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Beraz, batez beste aitortutako lan-errenta, enpresaburu, profesional eta artistena baino askoz handiagoa da; alde handiena, eta

deigarriena ere, **Bizkaian** atzeman daiteke: **6.649,2 eurokoa**, hain zuzen ere. **Gainera, bi kolektiboen errenten artean urtez urte** dagoen gero eta jauzi handiagoak **agerian uzten du** enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentak **eskuratzen dituztenen** iruzur fiskala.

4. Iruzur fiskala

Atal honetan, egindako zerga-ikuskapenei esker zenbat diru bildu zen aztertuko dugu, edo, bestela esateko, zenbateko iruzurra atzeman zen. Oraingo honetan, 1995-2002 epealdiari buruzko informazioa daukagu.

2002an, **94,7 milioi euro** bildu ziren EAEn egindako **zerga-ikuskapenen ondorioz**. Horren arabera, 2002an atzemandako iruzurra **aurreko ekitaldikoa baino %20,6 txikiagoa** izan zen; horrek, hala ere, ez du esan nahi benetan egindako iruzurra urritu egin denik.

Diru-kopuru horren benetako garrantzia ulertzeko, gogoratu behar dugu Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, adibidez, ekitaldi horretarako izan zuen aurrekontu-zuzkidura 61,6 milioi eurokoa izan zela (hautemandako zerga-iruzurraren erdia baino zertxobait gehiago, alegia). Ikuskapenen zioz bildutako diru-kopuru handiari eta arlo horretan egindako ahalegin eskasari erreparatuta, pentsa daiteke zerga-ikuskaritzan ahalegin handiagoa eginez gero, bildutako diru-kopurua ere nabarmenki handiagoa litzatekeela.

EAEn 2002an **atzemandako zorra zein zerga motari dagokion** aztertuz gero, **%58,7** (55,6 milioi euro) zuzeneko zergetakoa dela ikus dezakegu, **%36,2** (34,3 milioi euro) zeharkako zergei eta **%5,1** (4,8 milioi euro) tasen eta bestelako zergen multzoari dagokielarik.

Lurraldez lurraldeko azterketak erakusten duenez, zorraren **%38** (35,9 milioi euro) Gipuzkoan atzeman zen; zor guztiaren **%31** (29 milioi euro), Araban, eta iruzur txikiena, Bizkaian (EAEko zor guztiaren **%31**, hots, 29,3 milioi euro). Bizkaia bilketan pisurik handiena duen lurraldea dela kontuan hartuta, benetan burutzen den iruzurretik gutxien atzematen den lurraldea dela pentsarazten digu datu harrigarri horrek.


ZERGA ZORRARI BURUZKO AKTA LIKIDOEN XEHETASUNA
(MILIOI EUROtan). EAE, 1995, 2002

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	2002	1995	2002	1995	2002	1995	2002	1995
Z. ZUZENAK	11,1	13,0	20,5	13,8	23,9	44,5	55,6	71,3
ZEHARKAKO Z.	18,3	3,0	8,8	6,8	7,1	4,8	34,3	14,5
TASAK ETA BESTE			11	2,0	4,8		4,8	2,1
GUZTIRA	29,4	16,0	29,3	22,6	35,9	49,3	94,7	87,9

Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

Ondorengo grafikoan, EAEn 1995-2002 epealdian atzemandako zerga-zorrak izan duen **bilakaera** azter dezakegu, bai oro har hartuta, bai zuzeneko zergei, zeharkakoei eta tasa eta bestelako sarre-
rei erreparatuta. Bilakaerak joera aldakorra erakusten badu ere, zuzeneko zergetan atzemandako iruzurra da nabariena, zerga mota horren pisu handienaren eraginez; salbuespena 1999ko ekitaldian ageri da, zeharkako zergetan aurkitutako iruzurraren hazkunde itzelaren zioz. Gorabehera horien ostean, atzemandako iruzur osoa 87,9 milioi eurotik 94,7ra igaro zen 1995etik 2002ra bitarte; hau da, %7,7 hazi zen epealdi horretan zehar.

ZERGA ZORRARI BURUZKO AKTEN BILAKAERA
(MILIOI EUROtan). EAE, 1995-2002



Iturria: Euskadiko Zerga-Koordinaziorako Organoa

1. Hitzartutako zergen bilketa Nafarroan 2004an eta 2003koarekiko bilakaera

Oraingo honetan, Nafarroako hitzartutako zergen 2004ko bilketa aztertuko dugu (Hitzarmen Ekonomikoan adostu ondoren **Nafarroako foru ogasunak sartzen dituenak** dira hitzartutako zergak). Era berean, 2003ko bilketaarekiko izandako bilakaerari ere begiratuko diogu.

2004an, Nafarroako ogasunak **2.624,1 milioi euro** bildu ditu hitzartutako zergen zioz, hau da, 2003an bildutakoa (2.451,4 milioi euroko sarrerak) baino **%7,04 gehiago**.

a) Bilketa handiena eragin duten zergak.

Bilketa handiena eragin duten zergak aztertzean, honakoa ikus dezakegu:

- Balio Erantsiaren gaineko Zergak (BEZak) 901,3 milioi euro ekarri ditu foru-ogasunaren diru-kutxara, bilketa osoaren %34,3, alegia. Gainera, zerga horrek 2004an eragindako bilketa %10,48 handiagoa izan denez, puntu bat hazi da 2003ko bilketan zuen pisua, orduan %33,3koa izan zena.
- Pertsona Fiskoaren Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) bigarren zerga garrantzitsuena izan da, 751 milioi euroekin bilketa osoaren %28,6 dagokiolarik. Horixe da aurreko ekitaldikoa baino bilketa txikiagoa (%1,48 txikiagoa) eragin duen zerga bakarra, eta, horrela, guztizko bilketan zuen pisua 2,5 puntu urritu da 2003koaren (%31,1) aldean.
- Zerga Berezien zioz, 388,3 milioi euro (bilketa osoaren %14,8) bildu dira. Zerga horiek %9,27 hazi dira aurreko urtekoekiko, eta, ondorioz, 0,3 puntu handiagoa da guztizko bilketan duten pisua. Zerga berezietan izandako gehikuntzaren arrazoia 2004an tabakoaren gaineko zergak (81,6 milioi euro) Nafarroan biltzen hasi izana da, eta zerga bereziekin batera biltzen dira, hain zuzen ere .
- Gehien hazi dena (%14,23) Sozietateen gaineko Zerga izan da. Zerga horren zioz, 341,97 milioi euro (bilketa osoaren %13) batu dira. Hazkundearen eraginez, 2003an (%12,2) baino 0,8 puntu handiagoa izan da zerga horren pisua.

BILKETA HANDIENeko ZERGAK, MOTAREN ARABERA; EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2004-2003. MILIOI EUROtan

	2004	EGITURA (%)	2003	EGITURA (%)	% ALD.
BEZ	901,3	34,3	815,8	33,3	10,48
PFEZ GUZTIRA	751	28,6	762,3	31,1	-1,48
Z. BEREZIAK	388,3	14,8	355,3	14,5	9,27
SOZIJATE Z.	341,97	13,0	299,38	12,2	14,23
BESTE	241,58	9,2	218,62	8,9	10,50
GUZTIRA	2.624,1	100	2.451,4	100	7,04

Iturria: Nafarroako Gobernua

BEZa izan da foru-ogasunaren diru-kutxara diru gehien ekarri duen zerga. **PFEZ**ren bilketa, ordea, txikiagoa izan da, eta **Sozietateen gaineko Zerga** da gehien hazi dena, nahiz eta, oraindik orain, bildutako guztiaren %13 besterik ez izan.

b) Zuzeneko eta zeharkako zergen bilketa

Azter ditzagun orain **zuzeneko eta zeharkako** zergen bilketa:

- Zeharkako zergek 1.434,3 milioi euroko bilketa eragin dute, bilketa osoaren %54,66, alegia. Gainera, %10,35 hazi denez, 2003an baino 1,64 puntu handiagoa izan da zerga horien pisua (2003an %53,02koa zen).
- Zuzeneko zergek bilketa osoaren %44,3 eragin dute, 1.162,53 milioi euro, hain zuzen ere. Zerga horren ondoriozko diru-sarrerak batez bestekoaren azpitik hazi dira, %3,11, zehazki, eta, beraz, 1,69 puntu jaitsi da 2003an zuen pisua (%45,99).
- Gainerako zergen batura (hau da, Tasen eta Bestelako Sarrerena) 27,27 milioi eurokoa izan da, 2003koarekiko %13,26 hazi ondoren; hortaz, bilketa osoan duen pisua handitu egin da (2003an bilketa osoaren %0,98 izatetik %1,04 izatera igarota).

HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA; EGITURA ETA BILAKAERA. NAFARROA, 2004-2003. MILIOI EUROtan

	2004	EGITURA (%)	2003	EGITURA (%)	% ALD.
ZEHARKAKO Z.	1.434,3	54,66	1.299,82	53,02	10,35
Z. ZUZENAK	1.162,53	44,3	1.127,5	45,99	3,11
BESTE	27,27	1,04	24,08	0,98	13,26
GUZTIRA	2.624,1	100	2.451,4	100	7,04

Iturria: Nafarroako Gobernua

Ondorioz, laburtzeko esan dezakegu **zeharkako zergen pisua**, hots, pertsona guztiak **berdintasunez zergapetzen dituzten zergena, handitu egin dela**, eta aitortutako diru-sarreraren arabera zergapetzen duten zergen pisua, hau da, zuzeneko zergena, urritu egin dela. Hortaz, 2003an zeharkako zergen bilketa zuzenekoena baino 7,03 puntu handiagoa zen bitartean, aldea 3,33 puntu hazi da, 2004an 10,36 puntukoa izan arte.

c) Zuzeneko zergen bilketa, errenta-iturriaren arabera

Atal honetan, zuzeneko zergen osagaiak aztertuko ditugu; zerga horien zioz 1.162,53 milioi bildu dira, 2003koen aldean %3,11 hazi ondoren. Azterketa hau egitean, zergak lan-errentei ala enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentei dagozkien erreparatuko diogu.

- Lanaren PFEZak 740,3 milioi euroko bilketa eragin du, hau da, zuzeneko zergen baturaren %63,68. Zerga honek 2003an zuzeneko zerga guztien baturan zuen pisua (%63,26) 0,42 puntu hazi da, %3,79 handitu ondoren.
- Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten zioz 436,85 milioi euro bildu dira (2003an baino %10,2 gehiago). Horrela, zuzeneko bilketaren %37,58 izan dira (2003an baino 2,42 puntu gehiago). Errenta horien bi osagaiei begiratzean ikus daitekeenez:
 - * Sozietateen gaineko Zergak 342 milioi euroko bilketa eragin du (2003an baino %14,23 gehiago); horrek zuzeneko zergen %29,42 adierazten du, 2003an (%26,55) baino 2,87 puntu gehiago hain zuzen ere.
 - * Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZ %2,22 urritu da 2003koaren aldean, eta 94,88 milioi euroko bilketa eragin du. Beraz, zuzeneko bilketaren %8,16ra iritsi da, hau da, 2003an (%8,61) baino 0,45 puntu gutxiago ditu.
- Zuzeneko gainerako zergen batura (Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta abarrena) -14,57 milioi eurokoa izan da. Kopuru hori negatiboa izan da, PFEZko kuota diferentzial garbia negatiboa izan delako (errentaren kanpainan ogasunak itzultzen duena diru-sarreak baino handiagoa da).

**ZUZENeko ZERGEN BILKETA, ZERGA MOTAREN ARABERA;
EGITURA ETA BILAKAERA.
NAFARROA, 2004-2003. MILIOI EUROtan**

	2004	EGITURA (%)	2003	EGITURA (%)	% ALD.
LANAREN PFEZ	740,3	63,68	713,2	63,26	3,79
- SOZietATE Z.	342,0	29,42	299,4	26,55	14,23
- ENPR., PROF., K PFEZ	94,88	8,16	97,03	8,61	-2,22
ENPR., PROF., K. (*) ERREN.	436,85	37,58	396,41	35,16	10,2
BESTE	-14,57	-1,25	17,89	1,59	-181,45
Z. ZUZENAK GUZTIRA	1.162,53	100	1.127,5	100	3,11

Iturria: Nafarroako Gobernua

Beraz, 2004an gehien hazi den zuzeneko zerga Sozietateen gainekoa izan da (%14,23), eta horren ostean, enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten gaineko zerga (%10,2) eta **lanaren PFEZ (%3,79)**, zerga horiek bilketa osoan duten pisua ere handitu egin delarik. Dena dela, lanaren PFEZ **zuzeneko zergen baturaren bi heren bestekoa da oraindik ere** (zuzeneko zergen bilketaren %63,68). Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZren bilketa, bestalde, urritu egin da 2003koaren aldean.

d) 2004ko bilketari buruzko ondorioak

- **Zeharkako zergen** baturak bilketa osoan duen pisua handitu egin da, eta zuzeneko zergena urritu.
- Sozietateen gaineko Zerga batez bestekoaren gaintik hazi da, baina, hala ere, **lanaren PFEZ** zuzeneko zergen bilketaren %64koa da, oraindik orain.

2. Hitzartutako zergen presio fiskala Nafarroan. 2004 eta 1998koaren aldean izandako bilakaera

a) Presio fiskal osoa. 2004 eta bilakaera

Aberastasunetik (BPGtik) zergak ordaintzeko (kasu honetan, hitzartutako zergak ordaintzeko) **erabiltzen den ehunekoa** da presio fiskala.


Hitzartutako zergen presio fiskala **BPGaren %19,4koa** izan da 2004an; horrek esan nahi du Nafarroan sortutako 100 euro bakoitzetik 19,4 hitzartutako zergak ordaintzeko erabili direla.

(*): Sozietate gaineko Zerga + Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZ

Presioa 2003koaren ia berdina izan da (2003an BPGaren %0,1 **handiagoa** izan zen); egitate hori onuragarria dela esan genezake, beraren eragin hutsalagatik ez balitz. Hala ere, aipatu igoera apalaren arrazoia zeharkako zergen presio fiskalak BPGaren 0,4 puntu handitu izana da, zuzeneko zergena 0,3 puntu jaitsi baita.

Bilakaera 1998tik aurrera aztertzen badugu (Nafarroako lurraldean zerga bereziak urte horretan hasi baitziren biltzen), **presio fiskala BPGaren 1,1 puntu urritu** dela ikus dezakegu. Horrek esan nahi du 2004an presio fiskala 1998koaren berdina izan balitz, bildutakoak baino 148,9 milioi euro gehiago bildu beharko zirela. Presioan izandako murrizpena zeharkako zergetan izandako urripenaren ondorioa da (zeharkako zergak BPGaren 1 puntu urritu dira eta), zuzeneko zergek eragindako presio fiskala bere horretan mantendu baita.

HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA, GUZTIRA,
ZUZENEKO ZERGENA ETA ZEHARKAKOENA.
NAFARROA, 1998-2004 (BPG %).



Iturria: Nafarroako Gobernua


Beraz, **presio fiskalak nolabaiteko hazkundera izan du 2003koarekiko**, zeharkako zergen presioak izandako gehikuntza-
ren zioz. Dena den, presioa **nabarmenki murriztu da 1998tik aurre-
ra**, urte bakoitzean aldaketa nabariak pairatuz.

b) Zuzeneko zergen presio fiskala. 2004 eta bilakaera

Honako grafiko honetan, zuzeneko zergen bilketaren osagaien presio fiskala eta 1998ko ekitalditik aurrera izandako bila-
kaera azter ditzakegu.

- Lanaren PFEZ izan da presio fiskalik handieneko osagaia (BPGaren %5,5), 2003koaren aldean 0,1 puntu txikiagoa izan arren. Lanaren PFEZren presio fiskala BPGaren 0,4 puntu handitu da 1998tik.
- Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten presio fiskala BPGaren %3,2koa izan da, hots, lanaren PFEZrena baino 2,3 puntu txikiagoa. Errenta horien presio fiskala aurreko ekitaldikoa baino 0,1 puntu handiagoa izan da, baina 1998koa baino 0,2 puntu txikiagoa. Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten bi osagaien azterketak erakusten duenez:
 - * Sozietateen gaineko Zergak BPGaren %2,5eko presioa izan du 2004an, hau da aurreko ekitaldikoa baino 0,1 puntu handiagoa eta 1998koaren berdina.
 - * Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presio fiskala BPGaren %0,7koa izan da 2004an, 2003koa baino 0,1 puntu txikiagoa eta 1998koa baino 0,2 txikiagoa, alegia.

HITZARTUTAKO ZUZENeko ZERGEN PRESIO FISKALA.
NAFARROA, 1998-2004 (BPG %)



Iturria: Nafarroako Gobernua

Beraz, zuzeneko zergen presio fiskala mantendu egin da 1998tik aurrera, Sozietateen gaineko Zergen presioa bezalaxe. Enpresaburu, profesionalen eta kapitalaren PFEZren presioa urritu egin da, bai eta enpresaburu, profesionalen eta kapitalaren errentena ere. Lanaren PFEZren presioa da handitu den bakarra. Izan ere, lanaren PFEZren presio fiskala enpresaburu, profesionalen eta kapitalaren errentena baino 1,7 puntu handiagoa zen 1998an, eta diferentzia hori 2,3 punturaino handitu da 2004an.

d) 2004ko presio fiskalari eta bilakaerari buruzko ondorioak

- Hitzartutako zergen presio fiskala bere horretan **mantendu da 2003koaren aldean**, eta **nabarmenki urritu da 1998koarekiko**.

- Zuzeneko zergetatik, **lanaren PFEZren** presio fiskala da **handitu den bakarra**; beraz, areagotu egin da zerga horren presioaren eta gainerako zergenaren arteko jautzia.

3. PFEZren egoera Nafarroan

a) Aitortutako errentaren jatorria

PFEZn aitortzen den errenta nondik datorren aztertuko dugu oraingoan. Eskuartean daukagun informazio berriena 2003ko ekitaldian lortutako mozkinen buruzkoa da.¹

Nafarroan 2003an aitortutako errentaren **%81,6a lanaren errentetatik** etorri zen, **%8,9a enpresaburuena, profesionalen eta artisten errentetatik**, eta **%9,4a gainerako errentetatik** (kapital higigarria, kapital higiezina eta abar).

2001 eta 2003 bitarte, lanaren errentek aitortutako errentan duten pisua 2 puntu handitu da, enpresariena, profesionalen eta artisten errenten pisua 0,6 puntu murriztu eta gainerako errentak ere 1,4 murriztu direlarik.

ERRENTAREN ITURRIEK PFEZn DUTEN PISU ERLATIBOA (%). NAFARROA 2001-2003

	LANA	ENPR., PROF., ART.	BESTEAK
2001	79,6	9,5	10,9
2002	80,7	9,1	10,2
2003	81,6	8,9	9,4

Iturria: Nafarroako Gobernua

Beraz, **PFEZn aitortzen denaren %80tik gora lan errentetatik dator, eta portzentajea gorantz doa urtez urte.**

b) Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta

Kolektibo bakoitzak PFEZn batez beste aitortzen duen errenta aztertuko dugu atal honetan. Oraingoan ere, daukagun informaziorik arestikoena 2003koa da, eta 2001etik aztertu ahal dugu bilakaera.

¹ Kalkulatzeko metodologia aldatu egin da aurten, eta errentaren gehikuntzaren zati berezia edo irregularra zerga-oinarriaren ataltzat hartu da kontuan. Aldaketa 2001, 2002 eta 2003ko ekitaldietarako egin denez, aukera izango dugu urte horietako bilakaera aztertzeko.

2003an Nafarroan PFEZn batez beste aitortutako lan-errenta 20.309,3 eurokoa izan zen, batez beste aitortutako errenta profesionala 10.831,5 eurokoa izan zelarik (hots, 9.477,8 euro gutxiagokoa).

Bestalde, enpresaburuek batez beste aitortutako errenta 8.464,3 eurokoa izan zen, lanarena baino 11.845 euro txikiagoa, alegia.

Beraz, Nafarroan **lan-errentak** aitortzen dituzten zergadunek, hau da, soldatako pertsonen kolektiboak, **lanbide- edo enpresa-errentak** aitortzen dituztenek **baino askoz diru-sarrera handiagoak** aitortu zituzten 2003an.

Gainera, aldea gero eta handiagoa da urtez urte, lan-errentak dauzkagunok aitortzen duguna nabarmenki hazten den bitartean, enpresa- edo lanbide-errentak aitortzen dituztenek aitortutakoa pixka bat baino hazten ez delako.

Zehazki esateko, Nafarroan lan-errentek batez beste aitortutakoa 2001 eta 2003 bitarte 1.604,78 eurotan handitu delarik, errenta profesionalak eskuratzen dituztenek aitortutakoa 403,62 eurotan baino ez da hazi; hortaz, bi errenta horien arteko aldea 1.201,2 eurotan handitu da 2001etik 2003ra.

Bestalde, enpresa-errentak lortzen dituztenek batez beste aitortutako errenta 90,31 eurotan besterik ez da hazi 2001 eta 2003 artean; beraz, horrelako errentak aitortzen dituztenen eta lan-errentak aitortzen dituztenen arteko diferentzia 1.514,5 eurotan handitu da aztertutako aldian.

KOLEKTIBO BAKOITZAK PFEZn BATEZ BESTE AITORTUTAKO ERRENTA. NAFARROA 2001-2003 (EURO)

	LANA	PROFESIONALA	DIF.	ENPRESABURU	DIF.
2001	18.704,5	10.427,9	8.276,6	8.374,0	10.330,5
2002	19.221,4	10.545,1	8.676,3	8.217,2	11.004,2
2003	20.309,3	10.831,5	9.477,8	8.464,3	11.845,0
2001-2003	1.604,78	403,62	1.201,2	90,31	1.514,5

Iturria: Nafarroako Gobernua

Ondorioz, **batez beste aitortutako lan-errenta** enpresa-, lanbide- eta arte-errenta **baino askoz handiagoa da**; bi errenta mota horien arteko **jauzia**, gainera, **handiagoa da urteak iragan ahala**, enpresa, lanbide- eta kapital-errentak eskuratzen dituztenek egiten duten **iruzur fiskala** agerian utziz.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

